TOKI ADMINISTRAZIO ZUZENDARITZA

Lorenzo Arnaiz Armentia, Toki Administrazio zuzendaria, titularra moduan

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA ZUZENDARITZA

Macarena Ruiz Redondo, Belén Echeverría Goitia, Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria, ordezko moduan

HIRUGARRENA: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 28a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria, OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA.

*Foru Aginduak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**1252**

**70/2012 FORU AGINDUA, otsailaren 22koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 4. aldaketaren espedientea, Arluzea herriguneari buruzkoa.**

AURREKARIAK:

Lehenengoa.- 2011ko maiatzaren 2an, Bernedoko Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketari, Arluzeari buruzkoari, bai eta espedientea hilabeteko epeaz jendaurrean ipintzeari ere. Horretarako, iragarkia argitaratu zen ALHAOn, 2011ko maiatzaren 30ean -65. alean-, El Correo egunkarian -2011ko ekainaren 8an-, eta udaletxeko iragarki taulan.

Bigarrena.- Jendaurreko informazio aldian ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, 2011ko uztailaren 4ko bilkuran.

Hirugarrena.- Bernedoko Udalak espedientea bidali zion Arabako Foru Aldundiari 2011ko irailaren 27an, hark behin betiko onar zezan. Hirigintza zerbitzu honek idazki bat bat bidali zuen urriaren 5ean eskatuz agiri osagarriak zuzen zitezela, bai administrazio espedientean bai agiri teknikoan. 2011ko azaroaren 24an, Bernedoko Udalak berriz ere bidali zuen espediente hori behin betiko onar zezan Foru Aldundiak.

Laugarrena.- Era berean, espedientearen gaineko txostena egin zuen Arabako Hirigintza Batzordeak 2012ko abenduaren 14an egindako 2/2012 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 14an onartutako 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa honek, zeina ekimen pribatukoa den, xedetzat du aldatzea Arluzeako Revidia kaleko eraikinaren zati baten egoera (katastro lurzatia: 1 poligonoko 249), antolamendutik kanpo baitago. Ondorioz, hiri lurzatiaren aurrean dagoen proiektuko bideak egun dituen 6,00 m-ko zabalera estutu egingo litzateke, eta 3,6 m izango lituzke egoera aldatuan.

Bigarrena.- Arluzeako Revidia kalean, zk.g., dago eraikin hori, 63,50 m-ko oinplanoko okupazioa du, eta horietatik 23 m$^2$ antolamendutik kanpo daude. Egun, familia bakarreko etxe bat dago, BS+1 duena.

Hirugarrena.- Espedienteak dioenez, proiektuan jasoriko bidearen aldaketak, zeina proposamenaren ondorioz baitator, badu arrazoi bat, eta da suhiltzaileen ibilgailuek gutxieneko zabalera askeak behar dituztela bideetara hurbiltzeko, hain zuzen ere, 3,5 m-koak, Eraikuntzaren Kode Teknikoan zehazturikoak.

DIRECCIÓN DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

Lorenzo Arnaiz Armentia, Director de Administración Local, como titular

DIRECCIÓN DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

Macarena Ruiz Redondo, como suplente de Belén Echeverría Goitia, Directora de Medio Ambiente y Urbanismo

TERCERO: El presente Acuerdo entrará en vigor el día de su aprobación sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2012.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Director del Gabinete del Diputado General, OSCAR BELTRÁN DE OTÁLORA MARTÍNEZ DE ANTOÑANA.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**1252**

**ORDEN FORAL 70/2012, de 22 de febrero, de aprobación definitiva del expediente de 4ª Modificación de las Normas Subsidarias de Planeamiento del municipio de Bernedo, relativa al núcleo de Arluzea.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 2 de mayo de 2011, el Ayuntamiento de Bernedo acordó aprobar inicialmente la Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Bernedo, relativa a Arluzea, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA número 65 de 30 de mayo de 2011, en el periódico El Correo de 8 de junio de 2011 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 4 de julio de 2011 a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- El Ayuntamiento de Bernedo remitió el expediente a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva, con fecha 27 de septiembre de 2011. Este Servicio de Urbanismo envió, con fecha 5 de octubre, un escrito solicitando la subsanación de documentación complementaria, tanto en el expediente administrativo como en el documento técnico. Con fecha 24 de noviembre de 2011, el Ayuntamiento de Bernedo volvió a remitir de nuevo el expediente de referencia para su aprobación definitiva por parte de esta Diputación Foral.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados 155/1999, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2012, de 21 de febrero.

FUNDAMENTOS

Primero.- La presente modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Bernedo, de iniciativa privada, tiene por objeto modificar la situación de fuera de ordenación de una parte del edificio ubicado en la calle Revidia de Arluzea, cuya parcela catastral es la 249 del polígono 1. Como consecuencia, el vial proyectado que da frente a esta parcela urbana vería reducida su anchura de 6,00 m en el estado actual a 3,6 m en el estado modificado.

Segundo.- La edificación de referencia se encuentra en la calle Revidia s/n de Arluzea y tiene una ocupación en planta de 63,50 m, de los que 23 m$^2$ se encuentran en situación de fuera de ordenación. Actualmente existe una vivienda unifamiliar de PB+1.

Tercero.- La modificación del vial proyectado, a consecuencia de la propuesta, se justifica en el expediente por las anchuras libres mínimas de 3,5 m para viales de aproximación de los vehículos de bomberos, especificadas en el Código Técnico de la Edificación.

Laugarrena.- Egungo egoeraren fitxa eta egoera berrituan proposaturiko berariazko araudia aurkezten ditu agiri teknikoak. Eta araudian islatzen dira eraikuntzan bete beharreko baldintzetako lerrokadura berriko 3,50 metroak, Eraikuntzaren Kode Teknikoa betez horrela. Kalea luzatzea ahalbidetzen du proposaturiko lerrokadurak, eta oraindik antolamendutik kanpo uzten du egungo eraikinaren oinplanoko 2 m$^2$.

Bosgarrena.- Gertatzen da ezen berariazko araudiaren fitxak 3,50 m-ko gutxieneko distantzia ezartzen duela bidearekiko; aitzitik, nola planoek hala administrazio espedienteko ziurtagiriek 3,60 m-ko distantzia ezartzen dute, eta hori zuzendu egin behar da.

Halaber, agiriaren memoriak jaso egin beharko du Eraikuntzaren Kode Teknikoko aplikatu beharreko araudi teknikoaren justifikazioa, zeinari esker 3,60 m zabaleko bidea egin daitekeen.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 4. aldaketaren espedientea, Arluzeako herriguneari buruzkoa, ondoko baldintza hauekin:

1.- Berariazko araudiaren fitxa zuzentzea, bidea 3,60 m zabal izango dela ezarriz, agiriko planoen arabera.

2.- Agiriaren memorian jasotzea Eraikuntzaren Kode Teknikoko aplikatu beharreko araudi teknikoaren justifikazioa, zeinari esker 3,60 m zabaleko bidea egin daitekeen.

Bigarrena.- Adierazitako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio (testu bateratua osatuta), berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bideari amaiera eman dio, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 22a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Cuarto.- El documento técnico presenta la ficha del estado actual y la normativa específica propuesta en el estado reformado. En ésta se reflejan los 3,50 m. de nueva alineación en las condiciones de la edificación, cumpliendo así el Código Técnico de la Edificación. La alineación propuesta permite la continuidad de la calle y deja aún fuera de ordenación 2 m$^2$ de la planta de la edificación actual.

Quinto.- Se da la circunstancia de que la ficha de la normativa específica propuesta establece una distancia mínima del vial de 3,50 m y, sin embargo, tanto los planos, como las certificaciones del expediente administrativo fijan una distancia de 3,60 m, aspecto que deberá subsanarse.

Asimismo, la memoria del documento deberá incluir la justificación de la normativa técnica de aplicación del Código Técnico de la Edificación que permite una anchura de vial de 3,60 m.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 4ª modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Bernedo, relativa al núcleo de Arluzea, con las siguientes condiciones:

1.- Corregir la ficha de la normativa específica estableciendo la anchura del vial en 3,60 m., de conformidad con los planos del documento.

2.- Incluir en la memoria del documento técnico la justificación de la normativa técnica de aplicación del Código Técnico de la Edificación que permite una anchura de vial de 3,60 m.

Segundo.- Las condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, constituyendo un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2012.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**1278**

**Diputatuen Kontseiluak 2012ko otsailaren 28ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

**- Foru dekretuak:**

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

13/2012 Foru dekretua, otsailaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordearen eraketa, antolaketa eta funtzionamenduaren arautegia.

EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

14/2012 Foru Dekretua, otsailaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

**1278**

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 28 de febrero de 2012.**

**- Decretos Forales:**

DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

Decreto Foral 13/2012, del Consejo de Diputados de 28 de febrero, que modifica el Reglamento de constitución, organización y funcionamiento de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y ADMINISTRACIÓN FORAL

Decreto Foral 14/2012, del Consejo de Diputados de 28 de febrero, que modifica la Relación de Puestos de Trabajo reservados a funcionarios/as de carrera de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.